

## Newton-en bigarren legea: ikerketa

### Helburua


- Aldagaiekin jokatzuz, lege fisikoa nola ondoriozta daiteken ulertu

### Aurretik jakin beharreko kontzeptuak

- Posizioa, abiadura eta azelerazioa

### Erabiliko diren baliabideak

- "Interactive Physics" programa erabiliko da.



- Irudiko simulazioa sortu edo bestela "Newton\_en 2\_en legea ikerketa" fitxategia lortu.

## Edukien garapena

### AKTIBITATEA

Blokeari indarrak aplikatuz, saio hauek osatu:

masa (kg)	indarra (N)	hasierako abiadura (m/s)	amaierako abiadura (m/s)	azelerazioa (m/s <sup>2</sup> )
2	2	0		
1	2	0		
2	1	0		
2	4	0		
2	-2	10		
1		2		1
1		2		2
2		10		-1
5	5	2		
5	10	2		

OHARRAK:

- azelerazioa grafikoki kalkulatu

### AKTIBITATEA

Zein formula du azelerazioak aurreko kasuetan?

Eman dezagun azelerazioaren ekuazioak formula hau duela :

azelerazioa = \_\_\_\_\_

non zatiketa horren goiko partean, azelerazioarekin erlazio zuzena dutenak agertzen dira eta beheko partean azelerazioarekin aurkako erlazioa dutenak.

Adierazi erlazio horiek eta formula osatu :

- zenbat eta handiagoa izan indarra hainbat eta \_\_\_\_\_goa da azelerazioa
- zenbat eta txikiagoa izan indarra hainbat eta \_\_\_\_\_goa da azelerazioa
- zenbat eta handiagoa izan masa hainbat eta \_\_\_\_\_goa da azelerazioa
- zenbat eta txikiagoa izan masa, hainbat eta \_\_\_\_\_goa da azelerazioa